

## Kirol-hezitzailea izaten ikasten

2016/10/24

Hasi dira Kirol-hezitzailea Adu Tituluaren eskolak. Aurrez aurreko saioak ostegunetan izango dira, arratsaldetan. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak antolatutako graduondo hau 2017ko apirilaren 6an bukatuko da.

Ikastaro honetan hartuko dute parte kirol eta hezkuntza esparrutik etorritako zortzi ikasleek. Zazpi hilabetean zehar, ostegunetako saio presentzialetan ikasle horiek egingo dituzte gogoetak, eztabaida-mintegiak... Gainera, banaka edo taldetan graduondo bukaerako proiektu bat garatu beharko dute, eta kurtso bukaeran aurkeztu. Proiektua egiteko ikasleek izango dute tutorearen laguntza.

Adu titulu honek prestatuko du ikaslea kirol esparruan pertsona anitzekin eta testuinguru anitzetan aritzeko. Hala, profesionala ikuspegi berritzaile batetik abiatuko da pertsonen garapen integrala eta gizarte inklusiboagoa bultzatzeko.



Ikastaroaren lehen eguna.